

SERGIO BASURKO

Ditxosozko pandemiaren ondorioz bi urtez kenduta egon ondoren, Belodromoak atea irekiko ditu berriro, zinemaren eta musikaren munduko persona garrantzitsu ugariaren partaidetzarekin. "Belodromoak berreskuratzea normaltasunera itzultzea baita", adierazi du José Luis Rebordinosek, eta horren seinale bertan programatu diren hiru estreinaldi garrantzitsu: Leon de Aranoaren dokumentala *Sintiéndolo mucho*, hamar urtez Joaquín Sabina irarritzen; Paco Leonen *Rainbow*, oso berezia, desberdina; eta, noski, euskaldun askok irrikaz espero duten Fermin Muguruzaren *Black is Beltza II: Ainhoa* animaziozko filma.

Horiez gain, ikasleentzako zinema itzuliko da Belodromora; eta, arestian aipatutako saioak gutxietsi gabe, ez dago gauza ederrago eta emozionalagorik goizero belodromoan 2.500 haurrekin beteta ikustea baino.

Hala, Belodromoak bihar irekiko ditu bere ateak, *Sintiéndolo mucho* lanarekin. Fernando León de Aranoak Joaquín Sabina kantautoreari buruz egindako dokumental horren aurkezpenean, gainera, Sabina bera eta Leiva musikaria izango dira zuzendari lagun egiten.

Egun bat geroago, larunbatean, *Rainbow* filmaren txanda izango da, *Ozeko aztia* film klasikoari Paco Leónnek egindako begiradaren protagonistak, Ayax Pedrosa eta Wekaforé,

Belodromoak ez da bizikletentzat bakarrik



eta aktore-zerrendako Carmen Maura, Carmen Machi, Luis Bermejo eta Hovik Keuchkerian bertan izango direlarik.

Azkenik, festivalaren azken-aurreko egunean Muguruza musikari eta zinemagileak *Black is Beltza II: Ainhoa* bere animaziozko film berria aurkeztuko du, eta, pertsonaiei ahotsa jartzen dieten hainbat akto-



re izango dira aurkezpenean: Maria Cruickshank, Itziar Ituño, Antonio de la Torre, Ariadna Gil eta Darko Peric.

Robotika hizpide

Pandemiak markatutako azken bi urteotan, Belodromoko haurrentzako saioak formatu birtualean egin dira ikasgeletan, baina aurten Belodromora itzuliko da handitasunez Ikas-

tetxeak Belodromoan izenarekin, festa-espiritua berreskuratzen duen eta haurrak harritzea espero duen proposamen batekin.

Belodromoko pantaila erraldoiak Eric Tostik zuzendutako *Terra Willy: planeta ezezaguna* animaziozko filmaren emanaldia barnean hartuko du. Istripu espazial baten ondoren, planeta ezezagun batean bizirik iraun behar duen eta, horretarako, robot baten eta izaki estralurtar baten laguntza izango duen haur bati buruzkoa da filma, euskarara bikoiztua. Filmaren emanaldiak robot sozialen -hots, gizakiarekin elkarreragin eta komunikatzeko eta, horrenbestez, gizakiei bitzta hainbat alderditan errazteko diseinatutako roboten- inguruko aurkezpen labur eta original bat izango du, Terra Willy filmeko robota halakoa baita.

Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateko Robotika eta Sistema Autonomoen Ikerketa Taldearen partaidetza eta lankidetzat izango du jarduerak; Elena Lazkano irakasle eta ikertzailea da, Igor Rodríguez eta Unai Zabala informatikari eta ikerlariak ere osatutako taldearen buru.

2019az geroztik, Donostia Zinemaldian programatzen diren eskola-zinemako saioek DIPC eta Euskadiko Filmategiaren laguntza dute. Aurten, eta jarduerak jada ohiko formatura itzuliko dela, irailaren 16an (ostirala) goizez, eta 19tik (astelehena) 23ra (ostirala) egingo dira saioak.

Musikaren eta irudiaren uztartzea

Euskadiko Orkestraren, SGAE fundazioaren eta Donostia Zinemaldiaren eskutik bueltan da Zinemaldian jada klasiko bilakatu den saioetako bat: Kontzertua & Proiektzioa ekimena. Hala, bihar larunbatean, eguerdian irekiko da Belodromoak musikazale, zinemazale eta, oro har, ikusleentzat, soinu-banden joaldi sinfonikoa eta horien pelikula-eszenen muntaketa uztartzen dituen ikuskitzunerako. Juan José Ocón donostiarra izango da orkestra zuzentzearen arduraduna, zein Euskadiko Orkestrarekin batera Andra Mari abesbatza ere arituko baita.

Aurtengo programak zazpi filmetako musikaren egokitzapenez osatzen da: *Mientras dure la guerra*, *La buena estrella*, *El portero*, *Nueve cartas a Berta*, Buñuel en el laberinto de las tortugas, *La sombra de nadie* eta *Cher ami*. Aipatzekoa da, gainera, aurten *Nueve cartas a Berta* filma Zinemaldiaren Klasikoak atalean ikus ahal izango dela.

Saioa ordu eta laurdenekoa izango da, eta sarrera doakoa, baina aurrez gonbidapena eskuratu beharra dago.

Zinemaldiko informazio guztia
www.naiz.eus

naiz: